

EKINTZAILE IZATEA:

GIPUZKOAREN ALDEKO KONPROMISOA

Gipuzkoan, Gipuzkoa berritzaile bat bultzatzearen eta garatzearen alde egin dugu apustu; berrikuntzaren eta ezagutzaren lurralde izatea nahi dugu, pentsatuz enpresak sortzeko jarrera ekintzailea bultzatzea ezinbesteko estrategia dela gure lurraldearen etorkizunerako. Horregatik garatu ditugu GEM eta REM ekintzaitzari buruzko mundu mailako txostenean oinarritutako estrategiak; Lisboako estrategian aipatzen diren hazkunderako jarraibideak; hezkuntza- eta prestakuntza-sistemetako helburu komunak; eta etengabeko ikaskuntzaren arloan ekintza-programa bat ezartzeko jarrera komuna.

Zentzu horretan, GIZPUZKOA EKINTZAILEtik eta, zehazki, buletin honen bitartez, gogo-eta-espazio bat sortu nahi dut, helburu bakar batekin ekin dezagun, kultura ekintzailea eta enpresa-espiritua bultzatzea, alegia. Hau da, pertsonen gaitasunak bultzatzea, ideiak

ekintza bihur daitezten. Bestela esanda, sormenarekin, berrikuntzarekin eta arriskuak hartzeko ahalmenarekin loturiko guztia bultzatzea, baita proiektuen planifikazioarekin eta kudeaketarekin loturikoa ere; hori guztia helburuak eskuratzeko.

Jarrerei dagokienez, inizatibarekin, jarrera gogotsuarekin, independentziarekin eta berrikuntzarekin zerikusia duten jarrerak bultzatzea, nola bizitza pribatuan, sozialean nahiz profesionalean.

Baina GEM txostenean dioden moduan ("a size does not fit all"), kultura ekintzailea bultzatzeko politikak eraginkorrak izateko, ingurune bakoitzeko egoeretara egokitu beharra dago. Horregatik, Berrikuntzarako eta Jakintzaren Gizarterako Departamentuan estrategia zehatzak eta jarduketak espezifikoak burutu ditugu.

Horretarako, jarduketa-printzipio zehatz batzuk izan ditugu oinarri, hala nola, lankidetzaren publikoa (Eusko Jaurilaritzarekin eta toki-erakundeekin, batez ere) eta pribatua (enpresekin eta eragile ekonomiko nahiz giza eragileekin) eta subsidiarioratasuna (balioa ematea hurbilenerako arlotik).

Azkenik, azpimarratu nahi nuke, Gipuzkoako Foru Aldundiak ekintzaitza eta berrikuntzaren alde duen konpromisoa dela erkidegoko agintaritzen aurrean datorren 2007-2013 programatik aurkeztu diren jarduketa-ildoan oinarri.



Joaquín Villa

Gipuzkoako Foru Aldundiko Berrikuntzarako eta Jakintzaren Gizarterako Departamentuko foru-diputatua.

ESTRATEGIAK ETA

JARDUKETA-ILDOAK

ESKOLAN KULTURA EKINTZAILEA BULTZATZEA

Enpresa-espirtua irakasteko/ikasteko sistema bultzatu behar da, betiere adinari egokiak zaizkion ezagutzak, gaitasunak, jarrerak eta trebezia pertsonalak landuz. Horretarako, unibertsitatekoa ez den hezkuntza-sistemari zuzendutako jarduketak jarri dira abian, hala nola, HASI ETA HAZI (gelan lantzeko material pedagogikoak, paperezko euskarrian nahiz euskarri digitalan); eta KOMODISEA (web-orrian dagoen jolas kooperatiboa: www.kosmodisea.net).

Jarduketa horien osagarri, pertsona ekintzailearen eguna ospatuko da hezkuntza alorrean; nazioarteko benchmarking lan bat egingo da hezkuntza alorrean; eta Unibertsitateko ekintzailera arloan I + G + i proiektuak egingo dira.

PENTSAKERA EKINTZAILEA, PARTE HARTZAILEA ETA ENPRESAK SORTZEKO BULTZATZEA

Enpresak sortzearen ekintza bera eta pertsona ekintzaileak eurak aintzat hartu eta balioetsiko dituen jarduketa orokorra jarri da martxan (www.gipuzkoaemprededora.net).

AHALIK ETA PERTSONA GEHIEN ENPRESABURU IZATERA ANIMATZEA

Enpresa sortzeko prozesuan laguntza ematea (TXEKIN www.gipuzkoa.net/ikasmina), bereziki oinarri teknologikoa/berritzailea duten enpresa-proiektuei lagunduz (TXEKINTEK) eta intrakintzailera.

ENPRESABURUAK BERRIKUNTZARA, HAZKKUNDERA ETA LEHIAKORTASUNERA BULTZATZEA

GIPUZKOA BERRITZEN prozesuan (www.gipuzkoaberritzen.net) kultura berritzaile eta ekintzailea bultzatzea bezalako helburuak jarri dira, baita, besteak beste, enpresa-sormena eta jarduera berritzaileen hazkundera bultzatzea.

Era berean, lurraldearen, ekintzailtzaren eta berrikuntzaren arteko uztardura bultzatzen duten hainbat lurralde-forori laguntzea.

FINANTZIAZIO FLUXUA HOBETZEA

Besteren finantziatorako sarbide berriak; arrisku gehiago hartuko dituzten eta enpresak definitzeko, sortzeko eta garatzeko prozesuetara egokituagoak dauden finantza-tresnak martxan jartzeko konpromisoa. Batetik, Eusko Jaurlaritza eta LUZAROREKIN (www.luzaro.es) lortutako akordioa azpimarratu behar da eta, bestetik, Gipuzkoako Foru Aldundiak, aurrekontuari dago-kionez, martxan jarri dituen kapital-arriskua tresna berriak.

ETE-ENTZAKO ONURAGARRIAGOA DEN ADMINISTRAZIOA ETA ARAUDIA SORTZEA

Administrazio-laguntza pertsonalizatua emateko sistema abian jartzea, enpresa berriak sortu ahal izateko.